

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK

Loiola

atsedenleku



Carlo Fontana arkitektoak sortu zuen santutegia, bertako behaginekin batera, XVII. mendean; santutegiaren erdian dago basilika; bi gune horiek bisitari asko izaten dituzte. MADDI SOROA/ARCAZI PRESS

Leku lasaia da Loiola (Azpeitia, Gipuzkoa). Urola ibarreko auzo horretan hainbat jende ibiltzen da egunero batetik bestera pasieran.

ITSASO IBARRA

Azpeitia

Urola ibarrean dago Loiola (Azpeitia, Gipuzkoa). Urola Erdia osatzen duten Azkoitia eta Azpeitia herriak elkartzen dituen bidean. Urola ibaiak eta Izarraizko mendiguneak inguratutik bertan dago gordea San Inazioaren basilika, Azpeitiko auzo horretako gune deigarriena eta ziurrenik bisitatuena. Santutegiarekin batera, atsedenerako eta meditazioarako hainbat leku daude inguruetan. Gogarte etxea, Arrupe zentroa eta basilika, esate baterako. Gune lasaia da, eta askok bertara jotzen dute atsedene bila. Egunero, ordea, jende asko ibiltzen da batetik bestera Azkoititik Azpeitirako eta alderantzizko bidea egiten; batzuk oinez, besteak korrika eta zenbait patinen gainean. Hain zuzen ere, Loiola bidean ikus daiteke Diego Garcia korrikalariaren irudia.



Urolako trenaren igarotzen zen lehen tuneletik; egun, trenbidearen gainean pasealekua eta bidegorria daude. MADDI SOROA/ARP

Azpeitiko auzoa da Loiola, eta Sanjuandegitik (Azpeitiko auzotik) berehala hel daiteke bertara oinez. Horretarako, garai batean Urolako trenak jarraitzen zuen bidearen gainean, pasealekua dago egun. Oinezkoentzako ez ezik, txirrindularitza zaleentzat ere badu bidegorria; bide hori Azkoitiraino heltzen da. Loiolako auzoan sartu eta berehala, bisitariak eskailera-ekin eta dinosauro ahodunarekin, zuhaitzarekin eta elefantearekin egingo du topo. Guztiak, ingu-

rugiro etxeko jolas parkean dauden txirristak dira.

INGURUGIROA EZAGUTUZ. XV. mendeko baserri baten barnean dago Ingurugiro Etxea. Garai bateko Egibar baserriaren atarian garbi irakur daiteke: «*Egibar etxe honetan azi zan, ume zala, Loyolatar Inigo Deuna*». Garai batean, beraz, San Inazio bizi izan zen bertan, baina egun hainbat haur eta gazte barneratzen dira etxe horretan ingurugiroari buruzko hainbat alorren

inguruko informazioa jaso eta ikasteko. Bertan, besteak beste, hondakinen berri, uraren hornidura eta tratamenduaren, energiaren garraio eta sorreraren nahiz baserri munduarekin eta herri inguruarekin loturiko ikasgaien berri jasotzen dute bisitariak. Horretarako, museoak erakusketa areto ugari ditu, eta 17 arlori loturiko erakusketak jorratzen dira bertan. Museoa bisita gidatuak egin daitezke, aldezturik hitzartuz gero.

Egibar baserria pasa eta inguruko baserrietako larreetan lasai asko ikus daitezke zelaietan dauden oilo eta oilarrak. Beste aldean, berriz, artasoroak eta baratzeak baserriarren zain daude. Pasealekuan aurrera egin, laster helduko da bisitaria garai batean Urolako trenaren geltokia zen hartara.

LOIOLAKO GELTOKIA. 1926an hasi zen Urolako trenaren martxan. Zumarraga eta Zumaia elkartzen zituen trenak, eta trenbideko auzotako bizilagunek hainbat une igaro dituzte tren horretan barrena. Loiolatik ere pasatzen zen tren, eta gainontzeko herrietan bezala, zutik dago oraindik ibiltzeari aspaldi utzi zion trenaren geltokia. Geltokira heldu aurreko bidean ikus daiteke trenak igarotzen zuen tunela, eta haren gainean auzoko hainbat etxe daude zutik. Egun, trenik ez da bertara iristen, baina herri lanetako kamioien joan-etorriak uxatzen du inguruetako isiltasuna. Geltokiaren alboan, auzotarraren elkarre gastronomikoa dago.

PARKEAN PATXADAZ. Geltokia atzean utzi, eta basilikaren aurreko parkea aurki daiteke. Bertan atzera eta aurrera ibiltzeko hainbat bide daude. Haurrekin pasean dabil-tzan aitona-amonak nahiz ibiltze-